

BEZEROEKIKO HARREMANA

Gure proiektua asteko janari-kiten zerbitzu bat da, bazkaria eta afaria barne hartzen dituen. Janari osasuntsua eta orekatua eskaintzea da haleburu nagusia, eguneroko otorduak prestatzea zaila egiten zaien pertsonei laguntzeko. Zerbitzu hau unibertsitateko ikasleei, familiei eta adineko pertsonei zuzenduta dago, izan ere, talde horiek askotan denbora falta edo antolaketa arazoak izaten dituzte elikadurarekin.

Bezeroek hileko harpidetza baten bidez ordainduko dute zerbitzua. Ordainketa eginda, astero janari-kutxa bat jasoko dute etxean, aste osoko bazkariak eta afariak prestatzeko beharrezkoa den janariarekin. Une honetan, janari-kutxa mota bakarra eskainiko da, menu sinple eta osasuntsuarekin, denentzako egokia izan dadin.

Bezeroekin harremanetan jartzeko eta gure balio-proposamena helarazteko, honako zerbitzuaren informazio guztia, menuen adibideak, prezioak eta harpidetza egiteko aukera azalduko dira. Webgunea erraza eta argi izango da, edonork erabili ahal izateko. Gainera, sare sozialak erabiliko dira, hala nola Instagram, TikTok eta Facebook; proiektua zabaltzeko eta jende gehiagorengana iristeko. Sare sozialen bidez, janari osasuntsuaren garrantzia azalduko da eta zerbitzuaren onurak erakutsiko dira.

Horretaz gain, email bidezko komunikazioa erabiliko da bezeroekin harremana zuzena izateko. Bezeroei asteko menuen berri emango zaie, aldaketak jakinaraziko dira eta zalantzak argitzeko aukera eskainiko da. Unibertsitateetan, adinekoen zentroetan eta gizarte-guneetan kartelak jarriko dira, teknologia gutxiago erabiltzen duten pertsonek ere zerbitzuaren berri izan dezaten.

Banaketa-sistemari dagokionez, janari-kutxa astero banatuko dira bezeroen etxeetara. Banaketa, banaketa proipioaren bidez egingo da, beti ere janariaren kalitatea eta segurtasuna bermatzeko. Kutzak baldintza egokietan restatuko dira, elikagaiak egoera onean iritsi daitezen.

Bezeroarekiko harremana bost fasetan antolatuko da. Lehenik, bezeroek zerbitzua ezagutuko dute komunikazio-kanalen bidez. Ondoren, informazioa irakurri eta zerbitzua ebaluatuko dute. Hirugarren fasean, online harpidetza egingo dute modu errazean. Laugarren fasean, astero janari-kutxa jasoko dute etxean. Azkenik, salmenta ondorengo fasean, bezeroen iritziak jasoko dira eta arreta pertsonalizatua eskainiko da.

Azken batean, gure proiektuaren balio nagusia erosotasuna, janari osasuntsua eta denbora aurrezteak da. Aukeratutako kanal guztien bidez mezu bera helaraziko da, bezeroek esperientzia ona izan dezaten eta zerbitzua eguneroko laguntza erabilgarria bihurtu dadin.